

## Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

### KULTURA-SAILA

1538

Uztailaren 26ko 185/1982 DEKRETOA, Kultura-Saileko Mikrofilm-Zerbitzua sortaraziz.

Autonomia-Elkarteko Agiripaper-Ogasun gehientsuaren berarizko egoerak, agiripaperak ahal den gutxien erabiltzea eskatzen du, konponezinezko andeapena alboratu ahal izateko.

Bestalde, aipatutako kondaira-agiripaper hoiek sakabana-tuta egoteak, berauen zainketarako, iraurarazketarako eta berauek ikertzeko, hainbat arazo sortzen ditu.

Mugapen hauek horrela izanik ere, kondaira-ikerketan jarrai-beharra egunetik egunera bistakoagoa egiten da, eta, horretarako, agiri-paperak ahal den gehien zainduz eta toki batera bilduz, Kultura-Sailari atxikitako Mikrofilm-Zerbitzua sortarazteko saloa egiten da.

Hori horrela, Kultura-Sailburuaren saloz eta Jaurlaritzak 1982garreneko Uztailaren 26ko Bilkuran aztertu eta onartu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo Atala.*—Mikrofilm-Zerbitzua sortaraztea.

*2garren Atala.*—Zerbitzu honen xedeak honako hauek izango liriteke:

a) Agiripapertokiekiko, berauen babespidetzarekiko eta aldaki egintzarekiko alorretan, Kultura-Sailari aholku ematea.

b) Eusko Jaurlaritzako, eta nahi izan dezatenean, Foru-Ahaldunditako eta Udaletxeetako kondairari buruzko agiri-gordailuak mikrofilmaztea.

c) Segurantzazko agiripapertokia gorde eta zaintzea; eta beste agiripapertoki batzuren zainketarako, hedaketarako edo osaketarako beharrezko izan daitezkeen bertatikako aldaki guztiak eskaintzea.

d) Autonomia-Elkarteari, kondaira eta kultura-alorretan, interesgarri izan dakizkiokeen eta Elkartetik kanpo aurki daitezkeen agiriez hornitutako agirigordailu mikrofilmatu bat beretzakotzea.

*3garren Atala.*—Zerbitzuak bere egitekoa bete ahal izango du:

a) Bereak dituen antolapidetzetan.

b) Inorenak diren agiripapertokietan kokatutako antolapidetza ezmugikorretan, aldakiak egiteratzeko batez ere.

c) Tokiz aldakorrak diren zerbitzuetan.

Gasteiz, mila bederatzirehun eta larogeita biko Uztailak hogeita sei.

Lehendakaria,  
KARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Kultura-Sailburua,  
RAMON LABAIEN SANSINENEA.

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

1538

DECRETO 185/1982, de 26 de Julio, de creación del Servicio de Microfilm del Departamento de Cultura.

Las características propias de gran parte del Patrimonio Documental de la Comunidad Autónoma recomiendan restringir al máximo su uso para evitar así su irreversible deterioro.

Por otra parte, la dispersión de dicha documentación histórica crea también múltiples problemas de salvaguarda, cuidado e investigación.

Pero, a pesar de ambas limitaciones, la necesidad de proseguir en su investigación histórica se hace cada día más evidente, y para ello, preservando, a un tiempo al máximo la documentación y concentrándola, se propone la creación del Servicio de Microfilm adscrito al Departamento de Cultura.

En su virtud y a propuesta del Consejero de Cultura y previa deliberación y aprobación del Gobierno, en su sesión de 26 de Julio de 1982,

#### DISPONGO:

*Artículo 1.º.*—Se crea el Servicio de Microfilm.

*Artículo 2.º.*—Este servicio tendrá como misión:

a) Asesorar en materia de archivos, protección y reproducción de fondos al Departamento de Cultura.

b) Microfilmar los fondos documentales históricos de todos los archivos públicos del País, tanto los del Gobierno como los de las Diputaciones Forales y Ayuntamientos que así lo deseen.

c) Conservar y mantener el archivo de seguridad y facilitar cuantas copias del mismo sean necesarias con fines de preservación, de difusión o de complemento a otros archivos y bibliotecas.

d) Adquirir un fondo documental microfilmado, de los materiales que, de interés para la historia y la cultura en general de la Comunidad Autónoma, se encuentren en archivos ajenos a ella.

*Artículo 3.º.*—El Servicio podrá ejercer sus funciones:

a) En sus instalaciones propias.

b) En instalaciones fijas, sustancialmente de reproducción, ubicadas en archivos ajenos.

c) En servicios móviles.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a veintiséis de Julio de mil novecientos ochenta y dos.

El Presidente,  
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Cultura,  
RAMON LABAYEN SANSINENEA.